BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

1978

AGINDUA, 2012ko apirilaren 18koa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Enplegu Zentro Berezietako Lanbide Jarduera Laguntzeko Unitateak finantzatzeko diru-laguntzen 2012ko deialdia egitekoa.

Pertsona ezgaituak Gizarteratzeko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 42.1 artikuluak (LISMI) Enplegu Zentro Bereziak definitzeko garaian honako hau adierazten du: lan produktiboa egitea dute xede nagusi; merkatuko operazioetan erregularki parte hartzen dute, eta helburutzat dute beren langile ezgaituek behar dituzten enplegu ordaindua eta egokitze pertsonal eta sozialeko zerbitzuen prestazioak ziurtatzea; aldi berean, ahalik eta langile ezgaitu kopuru handiena lan arrunteko araubidean integratzeko bitarteko bat da.

Apirilaren 21eko 469/2006 Errege Dekretuak Lanbide Jarduera Laguntzeko Unitateak arautu zituen, Enplegu Zentro Berezien egokitze pertsonal eta sozialeko zerbitzuen esparruan.

LISMI legearen 42.2 artikuluaren arabera honako hauek dira Enplegu Zentro Berezietako egokitze pertsonal eta sozialerako zerbitzuak: «errehabilitaziokoak, terapeutikoak eta gizartearen, kulturaren eta kirolaren esparruan integratzera bideratutakoak, Enplegu Zentro Bereziko langile minusbaliatuari errehabilitazio pertsonal handiagoa eta bere gizarte-harremanen egokitze hobea eskaintzen diena».

Egokitze pertsonal eta sozialeko zerbitzuak funtsezko bide dira ezgaitasuna duten pertsonak guztiz gizarteratzea lortzeko. Beren funtzioak lan-egokitzeetara bideratzen dituzte, eta horrek aukera ematen die ezgaitasuna duten langileei lanpostu batera guztiz egokitzeko prozesuan dituzten zailtasunei aurre egiteko eta horiek gainditzeko, baita lanpostuan jarraitzeko unean ere, batez ere zailtasun bereziak dituzten langileen kasuan.

Lanbide Jarduera Laguntzeko Unitateak talde multiprofesionalak dira, hainbat funtzioren bidez ezgaitasunen bat duten langileek Enplegu Zentro Berezietan izaten dituzten oztopoak eta trabak gainditzen laguntzea ahalbidetzen dutenak, langile horien laneratzea bereziki zaila den kasuetan, hala nola, garun-paralisia duten pertsonen kasuan, buruko gaixotasunak dituztenen kasuan edo adimen-ezgaitasuna duten pertsonen kasuan, edo aitortutako % 65eko ezgaitasun-maila edo handiagoa duten ezgaitu fisiko edo sentsorialen kasuan, lanpostu batean lanean hasteko prozesuan, baita lanpostu horietan jarraitzerakoan ere.

Aipatzekoa da adimen-ezgaitasuna eta buruko nahasteak dituzten langileen kasuan EAEn lortu den enplegu-bolumen handia, Euskadiko Enplegu Zentro Berezi guztietako % 50 izatera iritsi dira eta. Hori dela eta, ezinbestekoa da zentro horiek langile espezializatuz hornitzea, lanpostuetara egokitzeko eta enplegu egonkorra eta kalitatekoa lortzeko beharrezkoak diren lanbide-gaitasunez jabetzeko banako ibilbideetan laguntza eta babesa bermatzeko.

Hori dela eta, honako funtzioak izango dituzte, besteak beste, Lanbide Jarduera Laguntzeko Unitateak osatzen dituzten langileek: pertsona eta bere lanpostua aztertzearen bidez ezgaitasuna duen langileak bere jarduera egin ahal izateko dituen laguntza-premiak hautematea; familiako eta gizarteko ingurunearekin beharrezko diren harremanak izatea, enpleguan lanean hasteko eta bertan jarraitzeko pizgarri izan daitezen; autonomia eta independentzia ahalbidetzea; lanpostura

egokitzeko beharrezkoak diren prestakuntza-programa guztiak garatzea; eta langileari laguntzea lan-merkatu arruntean sartzeko garaian.

Hori guztia dela-eta, 2012ko jarduerako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 6/2011 Legea onartuta, eta Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren proposamena aztertuta,

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da Lanbide Jarduera Laguntzeko Unitateak, apirilaren 21eko 469/2006 Errege Dekretuak arautu zituenak, finantzatzera bideratutako diru-laguntzak arautzea, Enplegu Zentro Berezien egokitze pertsonal eta sozialeko zerbitzuen esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoaren baitan.

2. artikulua.– Finantziaziora bideratutako bitarteko ekonomikoak.

4.500.000 eurokoak izango dira deialdi honen xede izango diren laguntzak finantzatzera bideratutako bitarteko ekonomikoak.

3. artikulua.– Diruz lagun daitekeen jarduna.

Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak Enplegu Zentro Berezietako Lanbide Jarduera Laguntzeko Unitateetan kontratu mugagabea duten langileen soldata-gastuak eta Gizarte Segurantzako gastuak finantzatzera bideratuko dira. Langile horiek apirilaren 21eko 469/2006 Errege Dekretuaren 2. artikuluan aurreikusitako funtzioak betetzen dituzte, 2012ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 bitarteko epean.

4. artikulua.– Diru-laguntzaren onuradunak.

1.– Deialdi honetan araututako diru-laguntzen onuradun izan ahal izango dira Enplegu Zentro Berezien erakunde titularrak eta zentroak berak, nortasun juridiko propioa baldin badute, betiere ondorengo eskakizunak betetzen badituzte:

a) Enplegu Zentro Bereziak Enplegu Zentro Berezi gisa izena emanda egotea Enplegu Zentro Berezien Erregistroan.

b) Enplegu Zentro Bereziko plantillako kide izatea ondorengo artikuluan aipatutako ezgaitasun-motak eta mailak dituzten langileak.

c) Enplegu Zentro Bereziek Laguntzeko Unitateak izatea, ondorengo pasartean aurreikusitako osaketa izango dutenak.

2.– Enplegu Zentro berezietako Lanbide Jarduera Laguntzeko Unitateen osaketak bat etorri beharko du ondorengo moduluekin.

a) 5. artikuluan deskribatutako kasuren bateko ezgaitasuna duten 15 langile arte, erdi- edo goi-mailako teknikari 1, edo pareko ezagutza edota esperientzia duena, lanaldiaren % 20rekin gutxienez, eta produkzioan laguntzeko arduradun 1, lanaldi osorako, edo proportzioan dagokion adina, kontratazioa lanaldi partzialekoa bada.

b) Langileak 16 eta 30 artean badira, erdi- edo goi-mailako teknikari 1, edo pareko ezagutza edota esperientzia duena, lanaldiaren % 80rekin gutxienez, eta produkzioan laguntzeko 2

arduradun, lanaldi osorako, edo proportzioan dagokion adina, kontratazioa lanaldi partzialekoa bada.

c) Langileak 31 eta 45 artean badira, erdi- edo goi-mailako 2 teknikari, edo pareko ezagutza edota esperientzia dutenak, bietako bat lanaldi osorako eta bestea lanaldiaren % 50ekin gutxienez, eta produkzioan laguntzeko 3 arduradun, lanaldi osorako, edo proportzioan dagokion adina, kontratazioa lanaldi partzialekoa bada.

d) Langileak 46 eta 60 artean badira, erdi- edo goi-mailako 2 teknikari, edo pareko ezagutza edota esperientzia dutenak, lanaldi osorako, eta produkzioan laguntzeko 4 arduradun, lanaldi osorako, edo proportzioan dagokion adina, kontratazioa lanaldi partzialekoa bada.

e) Langileak 61 eta 75 artean badira, erdi- edo goi-mailako 3 teknikari, edo pareko ezagutza edota esperientzia dutenak, horietako bi lanaldi osorako eta bestea lanaldiaren % 50ekin gutxienez, eta produkzioan laguntzeko 5 arduradun, lanaldi osorako, edo proportzioan dagokion adina, kontratazioa lanaldi partzialekoa bada.

f) Langileak 75 baino gehiago badira, proportzioan finkatuko da Lanbide Jarduera Laguntzeko Unitateko plantilla, aurrez adierazitako irizpideen arabera.

Hurrengo artikuluan zehaztutako ezgaitasun-mota eta maila duten eta zerbitzuaren hartzaile izango diren langileen kopurua ez badator bat modulu bakoitzeko maila gorenarekin, Lanbide Jarduera Laguntzeko Unitateetako langileen arduraldia ezgaitasuna duten langile horien kopuruaren araberakoa izango da.

Justifikatutako arrazoiak direla eta Unitate horietako langileen hutsuneak gertatzen direnean, hutsune horiek bete egin beharko dira, aurrez finkatutako proportzioei eusteko helburuarekin.

5. artikulua.– Azken hartzaileak.

Programa honen azken hartzaileak ondoren deskribatutako kasuren batean dauden Enplegu Zentro Berezietako langile ezgaituak izango dira:

a) Garun-paralisia duten pertsonak, buruko gaixotasuna dutenak edo adimenezgaitasuna dutenak, aitortutako % 33ko ezgaitasun-maila edo handiagoarekin.

b) Ezgaitasun fisiko edo sentsoriala duten pertsonak, aitortutako % 65eko ezgaitasunmaila edo handiagoarekin.

6. artikulua.– Diru-laguntzaren zenbatekoa.

1.– Diru-laguntzaren zenbatekoa urteko kopuru finkoa izango da, aurreko artikuluan adierazitako ezgaitasun-motak eta mailak dituen langileko, denbora mugagabez lanaldi osorako kontratatu badira edo sei hilabete edo gehiagoko iraupena izango duen aldi baterako kontratua egin bazaie. Kontratu mugagabeen kasuan diru-laguntza 1.200 eurokoa izango da urteko, eta aldi baterako kontratuen kasuan zenbatekoa iraupenaren arabera murriztuko da.

Horretaz gain, diru-laguntza lanaldiaren arabera murriztuko da, kontratua lanaldi partzialekoa bada.

2.– Diru-laguntzaren zenbatekoak ezingo ditu inoiz gainditu, berak bakarrik edo bestelako diru-laguntzekin, laguntzekin, sarrerekin edo bitartekoekin batera, denbora mugagabez kontratatutako Laguntzeko Unitateetako langileen soldata-kostuak eta Gizarte Segurantzakoak, diruz lagundutako aldiari dagozkionak.

7. artikulua.– Eskaerak aurkeztea.

1.– Deialdi honetako diru-laguntzak lortzeko eskaerak Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zerbitzu Zentraletan eta Lanbideko enpleguko lurraldebulegoetan aurkeztu beharko dira, dealdiaren eranskinean doan eta http://www.lanbide.net webgunean ere eskura egongo den eredu ofizialaren bidez.

Horretaz gain, eskaerak Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira.

2.– Eskaeraorriarekin eta bertako A, B, C eta D eranskinekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Lanbide Jarduera Laguntzeko Unitatearen memoria deskribatzailea, gutxienez honakoak zehaztuko dituena:

– Kokaleku fisikoaren xehetasunak.

– Jarduteko esparrua.

– Unitatearen osaketa, teknikariak eta arduradunak bereiziz.

– Organigrama funtzionala.

b) Urteko Kudeaketa Plana, gutxienez honakoak zehaztuko dituena:

– Garatu beharreko helburuak.

– Ekintzen denbora-banaketa.

– Lanbide Jarduera Laguntzeko Unitateko kideetako bakoitzaren zereginen deskribapena.

– Erabilgarri izango dituen azpiegitura, bitarteko eta baliabide instrumentalak.

– Zerbitzua emateko baldintzak.

c) Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunera dagoela egiaztatzeko ziurtagiria.

d) Eskaera sinatu duen pertsonaren NANaren fotokopia eta ordezkaritzaren egiaztagiria.

e) Diruz lagunduko den kontratazioaren xede diren Lanbide Jarduera Laguntzeko Unitateetan txertatutako langileen urteko ordainsari gordinaren egiaztagiria.

f) Hirugarren interesdunaren datuen altari buruzko fitxa, eskatzaileak eta dagokion bankuak izenpetu eta zigilatua.

3.– Eskaerak ez baditu betetzen deialdi honetan zehaztutako eskakizunak, interesdunari egingo zaio dei hamar eguneko epean zuzentzeko dagokion hutsunea edo akatsa. Hala egiten ez badu, eskaera bertan behera utzi duela ulertuko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

4.– Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

8. artikulua.– Prozedura eta ebazpena.

1.– Lana Aktibatzeko Zuzendaritza izango da eskaerak kudeatu eta bideratzeaz arduratuko den organoa, eta Lanbideko zuzendari nagusia horiek ebazteko eskuduna.

2.– Eskaerak aurkezteko epea amaituta, deialdian aurreikusitako eskakizunak betetzen dituztenei emango zaizkie laguntzak. Programa hau finantzatzera bideratutako bitarteko ekonomikoak nahikoa izango ez balira onartu beharreko eskaera guztiei erantzuteko, funtsak ezarritako lehentasun-ordenaren arabera banatuko dira, 9. artikuluan aurreikusitako balorazio-irizpideak kontuan izanik. Horretarako, kide anitzeko organo bat sortuko da, ebazpen-proposamena egingo duena, eta honako kide hauek osatuko dute:

– Presidentea: Lana Aktibatzeko Zuzendaritzako Enplegua Sustatzeko Arloko arduraduna, edo horrek eskuordetutako pertsona.

– Kideak: Enplegua Sustatzeko Arloko arduradunak izendatutako bi teknikari (horietako batek idazkari gisa jardungo du).

3.– Prozedura ebatzi eta jakinarazteko gehieneko epeak ezingo du izan sei hilabete baino gehiagokoa, deialdia EHAAn argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarota berariazko ebazpenik ez bada jakinarazi, eskaera ezetsi egin dela ulertuko da.

Ebazpenak administrazioaren bidea agortzen du, eta horren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera. Edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, zuzenean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

9. artikulua.– Eskaerak balioesteko irizpideak eta esleipena.

Bitarteko ekonomikoak eskakizunak betetzen dituzten eskaera guztiei erantzuteko behar adinakoak ez direnerako deialdi honetara aurkeztutako eskaeren lehentasunordena ezartzeko xedearekin, ondorengo irizpideak eta parametroak kontuan izanik balioetsiko dira aipatutako eskaerak:

1.– Kontratu mugagabea duten langile ezgaituen ehunekoa, Enplegu Zentro Bereziko plantillan ezgaitasuna duten langileen guztizkoaren arabera: 4 puntu arte, honako eskalaren arabera:

– > % 75: 4 puntu.

– % 51 – % 75: 3 puntu.

– % 25 – % 50: 2 puntu.

– < 25%: puntu 1.

2.– Garun-paralisia, buruko gaixotasuna edo adimen-ezgaitasuna, aitortutako % 33ko ezgaitasun-maila edo handiagoarekin, edo ezgaitasun fisiko edo sentsoriala, aitortutako % 65eko ezgaitasun-maila edo handiagoarekin, duten langileen ehunekoa, Enplegu Zentro Bereziko plantillan ezgaitasuna duten langileen guztizkoaren arabera: 4 puntu arte, honako eskalaren arabera:

– > % 75: 4 puntu.

– % 51 – % 75: 3 puntu.

– % 25 – % 50: 2 puntu.

– < % 25: puntu 1.

3.– Garun-paralisia, buruko gaixotasuna edo adimen-ezgaitasuna, aitortutako % 33ko ezgaitasun-maila edo handiagoarekin, edo ezgaitasun fisiko edo sentsoriala, aitortutako % 65eko ezgaitasun-maila edo handiagoarekin, duten emakumezkoen ehunekoa, Enplegu Zentro Berezian ezgaitasun-mota eta maila horiek dituzten langileen guztizkoaren arabera: 4 puntu arte, honako eskalaren arabera:

– > % 75: 4 puntu.

– 51% – 75%: 3 puntu.

– % 25 – % 50: 2 puntu.

– < % 25: puntu 1.

4.– Kontratu mugagabea edo sei hilabeteko lan-kontratua gutxienez duten Enplegu Zentro Berezitik datozen eta lan-merkatu arruntean dauden pertsona ezgaituen kopuruari dagokion ehunekoa Zentroko langile ezgaituen guztizkoaren arabera, azken bi urteetan: 4 puntu arte, honako eskalaren arabera:

– > % 75: 4 puntu.

– % 51 – % 75: 3 puntu.

– % 25 – % 50: 2 puntu.

– < % 25: puntu 1.

10. artikulua.– Diru-laguntza ordaintzeko modua.

Diru-laguntzak ordainketa bakarrean ordainduko dira diru-laguntzak emateko unean bertan, eta hala badagokio, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritako bermeen araubidea izango da aplikagarri, horrek arautu baitzuen Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargurako diru-laguntzen bermeen eta itzulketen araubide orokorra eta bertan ezarri baitziren horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen eskakizunak, araubidea eta betebeharrak.

11. artikulua.– Diru-laguntzaren justifikazioa.

Diru-laguntzaren onuradunak honakoak aurkeztu beharko ditu 2013ko martxoaren 31 baino lehen:

– Diruz lagundutako aldian Laguntzeko Unitateak izandako jardunari buruzko memoria.

– Laguntzeko Unitatean denbora mugagabez kontratatutako langileen nominen kopia, diruz lagundutako aldiari dagokiena, eta aldi horri berari dagozkion Gizarte Segurantzako kotizazioen agirien kopia (TC2 ereduak).

Aurreikusitako epean dokumentaziorik aurkeztuko ez balitz edo dokumentazio horretatik ondorioztatuko balitz emandako diru-laguntzaren zenbatekoak gainditu egiten duela Laguntzeko Unitateetan denbora mugagabez kontratatutako langileen soldatakostua eta Gizarte Segurantzako kostua, itzultzeko prozedurari ekingo zaio, 16. artikuluan aurreikusitako prozeduraren arabera.

12. artikulua.– Diru-laguntzaren baldintza orokorrak.

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak emateko eta ordaintzeko baldintzak izango dira ondorengoak:

a) Enpresa eskatzaileak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekin dituenak beteta dituela adierazten duen egiaztapena.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomiadunek emandako izaera bereko laguntza eta diru-laguntza publikoen esparruan hasi eta oraindik tramitazioan dagoen itzultzeko edozein prozedura nahiz zehapen-prozedura amaitzea.

c) Zigor– eta administrazio-arloko zehapenik ez izatea diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeari dagokionez, eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekuen eraginpean ez egotea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak ere barne direla.

13. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

Onuradunaren betebehar izango dira, oro har, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50. artikuluan ezarritakoak eta, bereziki, ondorengoak:

a) Diru-laguntza emateko oinarri diren jarduerak egitea.

b) Laguntza ematea edo horretaz gozatzea baldintzatzen duten eskakizunak eta baldintzak betetzen direla justifikatzea.

c) Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko kontu-hartzailetzako organoek, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiaztatzeko egindako jardueren mende jartzea.

d) Xede berbera duten bestelako diru-laguntzak edo laguntzak, edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik jasotakoak, jakinaraztea.

e) Dirulaguntza ematerakoan kontuan izandako edozein baldintza objektibo nahiz subjektibo aldatu dela jakinaraztea.

14. artikulua.– Diru-laguntza aldatzea.

Diru-laguntza emateko kontuan izan den edozein baldintza aldatzeak emandako diru-laguntza aldatzea ekarri ahal izango du berekin, betiere diru-laguntzen onuradun izateko deialdi honetan ezarritako gutxieneko eskakizunak betetzen badira. Baldintza horiek aldatzeak emandako diru-laguntza osoa edo horren zati bat itzultzea badu ondorio, dagokion itzultzeko prozedurari emango zaio hasiera.

15. artikulua.– Beste diru-laguntza batzuk aldi berean jasotzea.

Oro har, deialdi honetan deskribatutako laguntzak bateragarri izango dira beste edozein diru-laguntza edo laguntza lortzearekin. Nolanahi ere, izandako finantziazio-iturri guztietatik jasotako laguntzen zenbateko osoak ezin izango du inoiz gainditu diruz lagundu den aldian Laguntzeko Unitateetan denbora mugagabez kontratatutako pertsonen soldata-kostua eta Gizarte Segurantzakoa. Kostu hori gaindituz gero, dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da.

16. artikulua.– Ez-betetzeak eta itzultzeko prozedura.

1.– Deialdi honetan aurreikusitako laguntzen onuradun izango diren erakundeak Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53.1 artikuluan jasotako kasuren batean egongo balira edo deialdi honetan ezarritako baldintzetakoren bat beteko ez balute, Lanbideko zuzendari nagusiak ebazpen bidez adieraziko lieke, hala badagokio, jasotako diru-laguntzaren zati bat edo diru-laguntza osoa itzultzeko betebeharra, diru-laguntza emandako unetik bertatik sortutako legezko interesekin batera. Horretaz gain, egoki diren gainerako ekintzak bideratu ahal izango dira, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargurako diru-laguntzen bermeen eta itzulketen araubide orokorra arautzen duenean, xedatutakoaren arabera.

2.– Itzultzeko prozedurari Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak emango dio hasiera eta diru-laguntzaren onuradun izan den pertsonari jakinaraziko dio. Ez-betetzea eragin duen gertakariaren edo duten gertakarien berri emango dio eta eskaera egingo dio alegazioak egiteko edo egoki irizten dituen egiaztagiriak aurkezteko, hamabost eguneko epean.

3.– Alegazioetarako epe horretan ez bada alegaziorik aurkezten edo alegazio horiek ezetsi egin badira, ebazpena emango du Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak. Itzultzeko prozedura ebazteko gehieneko epea 12 hilabete izango da.

4.– Ebazpenean balioesten bada ez-betetzea izan dela eta diru-laguntza jasotzeko eskubidea galdu egin dela (osoa edo zati bat), interesdunak dagozkion zenbatekoak itzuli beharko dizkio Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuari, gehienez ere bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten denetik hasita. Epe hori borondatezko epetzat joko da.

Borondatezko epe horretan diru-laguntza itzultzen ez bada, diru-laguntza berreskuratzeko premiamendu-bidera jotzeko izapideei ekingo zaie.

XEDAPEN GEHIGARRIA.– Datu pertsonalen tratamendu automatizatua.

Datu Pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, deialdi honetan arautu diren laguntza-eskaerak betetzearen ondorioz lortutako datu pertsonalak bere fitxategi automatizatuetan sartuko ditu Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak.

Gainera, interesdunak legez aurreikusitako datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezeztatzeko, eta horien aurka egiteko eskubideez baliatu ahal izango dira, hori adierazteko idatzia bidaliz Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzura (José Atxotegi kalea 1, Vitoria-Gasteiz).

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Baliabideak.

Agindu honek administrazio-bidea agortzen du, eta, horren aurka, aukerako berraztertzeko errekurtso aurkez dakioke Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita. Edota administrazioarekiko auzi-errekurtso bat aurkez dezake Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian zuzenean, bi hilabeteko epean, aldizkari ofizial berean argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Bigarrena.– Indarrean hasteko eguna.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko apirilaren 18a.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.

ERANSKINA

ENPLEGU ZENTRO BEREZIAK – LAN ETA GIZARTE SEGURANTZAKO KOSTUEN DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERA PROFESIONAL JARDUERA LAGUNTZEKO UNITATEEN LANGILEEN KONTRATAZIO MUGAGABETATIK ERATORRITA

[apirilaren 21eko 469/2006 errege dekretua (2006-04-22ko EAO)]

1.– ORDEZKARIAREN DATUAK

Izen abizenak_____ NAN _____

Ordezkapenaren izaera

2.– ENPLEGU ZENTRO BEREZIAREN DATUAK

EZB izena	EZB gisako inskripzio-zk.

Helbidea	PK - Herria	Probintzia

3.– LANGILE EZINDUAK (A eranskina bete)

Enplegu Zentro Bereziaren langile ezindu osoen kopurua.	
Kontratu mugagabea duten langile ezinduen portzentajea Enplegu Zentro Bereziaren langile ezindu kopuru osoari dagokionez.	
Garun-perlesia, buru gaixotasuna edo % 33 edo hortik gorako mailako adimen gaixotasuna eta % 65 edo hortik gorako mailako ezindutasun fisikoak edota sentsorialak dituzten langileen portzentajea Enplegu Zentro Bereziaren langile ezindu kopuru osoari dagokionez.	
Garun-perlesia, buru gaixotasuna edo % 33 edo hortik gorako mailako adimen gaixotasuna eta % 65 edo hortik gorako mailako ezindutasun fisikoak edota sentsorialak dituzten emakume langileen portzentajea, aipatutako ezindutasun mota eta maila dituztenen langileen kopuru osoari dagokionez.	
Azken hamar urtetan, ohiko merkatuko enpresetan, kontratu mugagabea edo gutxienez sei hilabeteko kontratua duten Enplegu Zentro Berezitik eratorritako ezindutasuna duten langileen kopuru osoa.	

4.– PROGRAMAREN AZKEN HARTZAILE DIREN LANGILE EZINDUAK (B eranskina bete)

Enplegu Zentro Berezian, denbora mugagabeko kontratua edo sei hilabeteko edo hortik gorako aldi baterako kontratua duten garun-perlesia, buru gaixotasuna edo % 33 edo hortik gorako mailako adimen gaixotasuna eta % 65 edo hortik gorako mailako ezindutasun fisikoak edota sentsorialak dituzten langileen kopuru osoa.	

5.– LJLU-en LANGILEAK 469/2006 ED-ko ARTIKULUAN DESKRIBATUTAKO MODULUEN ARABERA

a) _____ eta _____ ezinduen arteko langileei dagokien modulua.

b) Teknikarien zk. [ ] (C eranskina bete) Arduradunen zk. [ ] (D eranskina bete)

6.– ESKATUTAKO DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA €

201....(e)ko..... -ren ..... (e)an

Sinatuta: .....

A, B, C eta D eranskin gaineratuak ikusi

Enplegu Zentro Berezia
Helbidea
PK - Herria
EZB gisako erregistro-zk. _____

AKREDITAZIO DOKUMENTALAK

A ERANSKINA – Diru-laguntzaren eskaera lanbide Jarduera laguntzeko Unitateen langileen kontratazio mugagabeagatik.

Eskaeraren datan, EZB-an alta emandako LANGILE EZINDUEN izenen zerrendan, alfabetoaren arabera antolatuta.

zk	Izen-abizenak	NAN	Alta data	Orri-zk.	Ezindutasun mota eta maila			
					Maila	Fisikoa	Psikikoa	Orrialde-zk.

JARRAIBIDEAK dokumentu hau betetzeko.
Langile bakoitzeko, zerrenda honi langilearen altari eta bere ezindutasunari dagokion akreditazio dokumentala erantsi behar zaio.
Dokumentu horiek eranskin honetan aipatu behar dira, dagokion eskaerarekin batera eta orrialdeak behar bezala zenbatuta eta korrelatiboki antolatuta egon behar dira.

Enplegu Zentro Berezia
Helbidea
PK - Herria
EZB gisako erregistro-zk. _____

AKREDITAZIO DOKUMENTALAK

B ERANSKINA – Diru-laguntzaren eskera Enplegu Zentro Berezien Lanbide Jarduera Laguntzeko Unitateen langileen kontratazio mugagabeagatik

Azken hartzaile diren **LANGILE EZINDUEN** zerrenda		(*)			**Zutabeak**							
					A	B	C	D	E	F	G	H
					Ezindutasun mota eta maila		Kontratuaren eta lanaldiaren iraupena					
					Psikikoa (% 33 edo gehiago)	Fisikoa (% 65 edo gehiago)	Mugagabea			Aldi baterakoa 6 hilabete baino gehiago		
							Lanaldi osoa	Denbora partziala		Lanaldi osoa	Denbora partziala	
Zk.	Izen-abizenak	G	E	NAN	Orrialde-zk	Orrialde-zk	Orri.-zk	Lan. %	Orri.-zk	Orri.-zk	Lan. %	Orri.-zk

JARRAIBIDEAK dokumentu hau osatzeko.

Langile bakoitzeko, zerrenda honi ezindutasun motari eta mailari dagokion eta kontratu motari eta lanaldi iraupenari dagokion akreditazio dokumentala erantsi behar zaio.

Dokumentu horiek eranskin honetan aipatu behar dira, dagokion eskaerarekin batera eta orrialdeak behar bezala zenbatuta eta korrelatiboki antolatuta egon behar dira.

A, B, C, E, F eta H zutabeetan, dagokionean, dena delako dokumentuari egokitutako orrialde zenbakia adieraziko da.

D eta G zutabeetan, dagokionean, kontratatutako lanaldiaren ehuneko ehun zenbakietan adieraziko da.

(*) dagokion bakoitzean X baten bidez markatu.

Enplegu Zentro Berezia
Helbidea
PK - Herria
EZB gisako erregistro zk _____

AKREDITAZIO DOKUMENTALAK

C ERANSKINA – Diru-laguntza eskaera Lanbide Jarduera laguntzeko Unitateen langileen kontratazio mugagabeagatik

LJLU osatzen duten **TEKNIKARIEN** zerrenda

Zk	Izen-abizenak	NAN	Kontratu mugagabearen alta data	Zutabeak		
				A	B	C
				Lanaldia		
				Osoa	Partziala	
				Orrialde-zk.	Lanaldiaren %	Orrialde-zk.

JARRAIBIDEAK dokumentu hau betetzeko.
Lanbide bakoitzeko, zerrenda honi kontratu mugagabearen hasierako datari eta kontratatutako lanaldiari dagokion akreditazio dokumentala erantsi behar zaio.
Dokumentu horiek eranskin honetan aipatu behar dira, dagokion eskaerarekin batera eta orrialdeak behar bezala zenbatuta eta korrelatiboki antolatuta egon behar dira.
A eta C zutabeetan eta dagokionean, dena delako dokumentuari egokitutako orrialde zenbakia adieraziko da.
B zutabean eta dagokionean, kontratatutako lanaldiaren ehuneko ehuna zenbakiz adieraziko da.

Enplegu Zentro Berezia
Helbidea
PK - Herria
EZB gisako erregistro-zk. _____

AKREDITAZIO DOKUMENTALAK

D ERANSKINA – Diru-laguntza eskaera Lanbide Jarduera Laguntzeko Unitateen langileen kontratazio mugagabeagatik

LJLU osatzen duten **ARDURADUNEN** zerrenda

Zk	Izen-abizenak	NAN	Kontratu mugagabearen alta data	Zutabeak		
				A	B	C
				Lanaldia		
				Osoa	Partziala	
				Orrialde-zk.	Lanaldiaren %	Orrialde-zk.

JARRAIBIDEAK dokumentu hau betetzeko.
Lanbide bakoitzeko, zerrenda honi kontratu mugagabearen hasierako datari eta kontratatutako lanaldiari dagokion akreditazio dokumentala erantsi behar zaio.
Dokumentu horiek eranskin honetan aipatu behar dira, dagokion eskaerarekin batera eta orrialdeak behar bezala zenbatuta eta korrelatiboki antolatuta egon behar dira.
A eta C zutabeetan eta dagokionean, dena delako dokumentuari egokitutako orrialde zenbakia adieraziko da.
B zutabean eta dagokionean, kontratatutako lanaldiaren ehuneko ehuna zenbakiz adieraziko da.